adibidea

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN ESPARRUA

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua

HELBURUA

1. Ikastetxearen barne- zein kanpo-harremanetan euskararen presentzia handitzea

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartzaileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
1.1. Familien inplikazioa handitzea euskararen erabileran.	1.1.1. Tutoretza-bileretan, ohiko gai gisa hartzea euskararen garapenean familiaren inplikazioak duen garrantzia.	Ikasturtean zehar, bilera guztietan → *Tutoreak familiekin*	Tutore guztiak	· Gai horri buruzko artikuluak	Aurreikusitako jarduerak egin dira **[%75]**	Familia erdaldunek oinarrizko zenbait esapide erabiltzen dituzte euskaraz ikastetxean: agurrak, galderak… **[%50]**
	1.1.2. familiekin egingo diren bileretan hizkuntzak erabiltzeko protokoloa idaztea.	Lehenengo hiruhilekoan → *Hizkuntza Proiektuaren batzordea*	Hizkuntza Proiektuaren batzordea Klaustrokideak	· Protokoloa	Protokoloa egin da. **[Bai/Ez]**	Protokoloa erabili da familiekin egin diren bileretan. **[%100]**
	1.1.3. Sentsibilizazio-lana familiekin, gizartean presentzia urria duen hizkuntzan egiten diren ekimenetan euren parte-hartzeak duen garrantziaz jabetzeko.	Lehenengo hiruhilekoan → *Zuzendaritza-taldea*	Zuzendaritza-taldea eta tutoreak Familiak	· Sentsibilizazio-jarduera diseinatzeko baliabideak eta osagaiak · Artikuluak, irakurgaiak	Aurreikusitako jarduerak burutu dira **[%75]** Aurreikusitako epean egin dira **[Bai/Ez]**	Familien partaidetzak gora egin du euskarari lotutako jarduera eta ekimenetan. **[%50]**